



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko urtarrilaren 27a

4. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (7. or.).
- Foru parlamentarien eta parlamentu-taldeen ordainsariak 2006ko ekitaldirako (11. or.).
- Lehendakariaren, eledunen eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen ordainsariak (12. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa, 2006ko urtarrilaren 1ekoa (13. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2005eko abenduaren 31n (15. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 2an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Lizarrako Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2005eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
 - IV.1. 2004ko aurrekontu bateratuaren likidazioa (3. or.).
 - IV.2. 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (4. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (4. or.).

- IV.4. Udalaren finantza-egoera 2004ko abenduaren 31n (4. or.).
 - IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharrak (4. or.).
 - IV.6. Comptos Ganberaren aurreko txosteneko gomendioen jarraipena (4. or.).
 - IV.7. Laburpena eta ondorio nagusia (4. or.).
 - V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (4. or.).
 - V.1. Administrazio-kontratazioari buruzkoan (4. or.).
 - V.2. Kudeaketari buruzko beste gomendio batzuk (6. or.).
- Eranskina: 2004ko finantzen egoera-orri bateratuen oroitidazkia.
- Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Lizarrako Udalak 13.562 biztanle ditu eta hauek dira bertako zifra adierazgarrienak 2004ko abenduaren 31n:

			(eurotan)
Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak
Udala	10.320.086	11.095.516	116
Musika Patronatua	267.798	159.153	14
Guztira	10.588.064	11.254.669	130

Jurramendiko Mankomunitatearen barruan da Udala, eta haren bidez eskainten ditu ur horniketeta eta zabor-bilketa zerbitzuak. Lizarraldeko Turismo Partzuergoan eta L'Urederra elkartean ere parte hartzen du.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Lizarrako Udalak eta haren erakunde autonomoak 2004ko ekitaldian izan duten kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutakoak eta Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua, hirigintza-kudeaketa eta administrazio-kontratazioa arautzen duen araudia eta Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa zaien gainontzeko araudia.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Lizarrako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoera agertzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon den.

d) Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Lizarrako Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2003ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketara programa-ekin bat, Lizarrako Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoaren –"Julian Romano" Musika Patronatua– finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2004ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua eta diruzaintzagerakin bateratua, eta 2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrek ere, 2004ko ekitaldikoak.

Udalak Kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta kontabilitatearen egoera-orri bateratuak dauzka, udalari eta haren erakunde autonomoari dagozkienak.

Eginiko lanak aurrekontuaren betetzearen kapitulu ekonomikoen berrikuspena (aurrekontuko aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertu dira) eta ondare-masen berrikuspena (antolaketak, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira) izan ditu ardatz nagusi.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean daude udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren antolamendua, barnekontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei.

IV. IRITZIA

Gauzaturiko fiskalizazioaren barruan, Lizarrako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren finantzen egoera-orri bateratuak, 2004ko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. 2004ko AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOA

Erantsi dugun 2004ko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala agertzen du, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokie-

nez, eginiko jarduera eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsitako 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak behar bezala agertzen du udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoaren finantza- eta ondare-egoera bateratua, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan; izan ere, 1995ekoa da eta gaurkotu gabe dago.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Udalaren eta haren erakunde autonomoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezko-tasun-printzipioari jarraituz egiten da.

IV.4. UDALAREN FINANTZA-EGOERA 2004ko ABENDUAREN 31n

Hasierako aurrekontu bateratua, 2004an, 13.763.243 eurokoa da, eta behin betikoa, 21.557.883 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 49koa du, eta dirusarrerena, ehuneko 52koa.

Betetze maila apala inbertsioen kapituluan agertzen da batez ere, lurpeko aparkalekuen proiektua berriz aztertzen ari delako, aurreikusitako beste obra batzuk, muntako zenbatekoa dutenak, bezala. Horren ondorioz dirusarrerak txikiagoak dira horrekin lotutako kapituluetan, kapital transferentzietan, inbertsio errealeen besterentzean eta finantza-pasiboetan, kasu.

Dirusarreraren artean, zuzeneko eta zeharkako zergek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 29 egiten dute, eta udalaren baliabideen ehuneko 46 transferentzietatik datoz.

Ekitaldia ixtean aurrekontuko emaitza bateratua 388.610 eurokoa zen. 2004ko abenduaren 31n, kreditu-erakundeekiko zorra 2.269.541 eurokoa da.

Diruzaintza-gerakin bateratua 1.713.061 eurokoa da eta aurrezki garbia ekitaldia ixtean ehuneko 13koa.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazio aski dago, oro har, egoera-orri haiek ongi interpretatu eta ulertzeko, udaleko oroit-idazkiak agertzen duenez.

IV.6. COMPTOS GANBERAREN AURREKO TXOSTENeko GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke aurreko ekitaldiei buruzko txostenetan egindako administrazio eta kontabilitate izaerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla, eta batzuk 2004an ari direla praktikan jarritzen.

IV.7. LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIA

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, adierazi behar dugu Lizarrako Udalak, ikuspuntu administrazio botik, ongi kudeatzen dituela bere aurrekontuak, baina beharrezkoa du:

- *Aurrekontuaren kudeaketaren barne kontrol-eko mekanismoak indarzea, egindako eragiketak segurtatzeko eta bermatzeko; batez ere, saldoak berdinkatzeko eta berraztertze arloari eta inbentarioak gaurkotzeari dagokienez.*

- *Administrazio kontratazioaren gaineko araudiak eskatutako baldintza formalak betetzea, V.1. atalean zehazten den bezala.*

Erakunde autonomoari dagokionez, jarduera kontrolatu eta babesteko bide eraginkorrak formalizatu eta betearazi behar ditu udalak.

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horren eragiketak, entitate publikoa den heinean, kontuhartzaitza publikoaren menpe daudela; horregatik, eginkizun hori benetan bete ahal izateko prozedura egokiak taxutu behar dira.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOARI BURUZKOAN.

Atal honetan xehekaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

V.1.1. Homidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

Espedientea	Prozedura	Adjudikazioaren zenbatekoa
Remontival Ikastetxearen garbiketa	Lehiaketa irekia	95.883
Oinezkoen pasabideak egokitzea	Lehiaketa irekia	117.237
Guztira		213.120

Azterturiko espedienteak kontratazioari buruzko araudiari egokitu zaizkio, eta berdintasun, lehiakortasun eta publizitate printzipio oinarrikoak errespetatu dira.

Halere, aztertutako espedienteetako bigarrean ez dira bete kontratuan ezarritako exekuzio-epaiek, baina horrek ez du penalizaziorik ekarri.

Comptos Ganbera honen gomendioak betez, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatua aplikatzen da. Egindako berrikuspenean oinarrituta, ondoko gomendioak ematen ditugu:

- *Udalari eta erakunde autonomoari aplikaturiko erosketa-prozedura idatziz garatzea, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzaile-*

tzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.

- *Jarduketa bati buruzko dokumentazioa dagokion espedientearen artxibatu beharko da. Espedientea osorik aurkeztu beharko da, araudiak eskatzen duen dokumentazio guztia daukala.*

- *Aplikatzea, bidezkoa denean, kontratuaren ezarritako penalizazioak.*

- *Kontratuen erregistroa, datuak modu sistematikoan biltzea ahalbidetzen duena, ezartzea.*

V.1.2 Inbertsioak

Hona hemen 2004an eginiko inbertsio nagusiaren zehaztapena (inbertsio horiek 2004ko ekitaldian zehar aitorturiko betebeharren ehuneko 57 egiten dute, gutxi gorabehera):

(euroak, milakotan)

Espedientea	Prozedura	Adjudikazioaren zenbatekoa		
			2004	2003
0-3 urte bitarteko eskola	Enkantea (*)	833	529	483
Aisia zentroa	Enkantea (*)	150	161	158
Otik 3 urtera bitarteko eskolako altzariak	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	69	69	-
Skate park	Negoziatua publizitatearekin	113	155	-
Karlos VII.a kaleko semaforoa	Negoziatua publizitatearekin	23	22	-
Lorzaintzako ibilgailua	Negoziatua, publizitaterik gabekoa	27	23	-
Trenbideko zubia	Enkantea (*)	897	585	733
Guztira			1.544	1.374

(*) Obra hauen espedienteak adjudikatzeko prozedurei buruzko iruzkinak ganbera honek 2003ko eta 2002ko ekitaldiez, eginiko txostenetan jaso ziren.

2004ko ekitaldian honako obra hauek bukatu dira:

- Otik 3 urtera bitarteko eskola; proiektu honetarako 2004an onetsitako aldaketen ondoren ez da prezioa aldatu.
- Trenbideko zubia; 2003an onetsitako aldaketa gorabehera, prezioa ehuneko 23 desbideratu da, baina espedientearen ez da jasota ageri kasuko txosten teknikoa. Ez da bete aipatu obra bukatzeko epea –11 hilabete– ; zuinketa aktaren data 2002ko abuztuaren 11 da, eta obra jasotzearena, berriz, 2004ko maiatzaren 4koa.

Aztertutako espedienteetan egiaztatu da oinarriko printzipioak –publizitatea, lehia eta berdintasuna– bete direla administrazio-kontratazioan.

Zenbait espedientetan (Otik 3 urtera bitarteko eskolako altzariak, Skate park, lorezaintzako ibilgailua) ez da jasota ageri idazkaritzak administrazio klausulen plegua onetsi aurreko txostena.

Karlos VII.a kaleko semaforoaren eta Skate park-aren espedientearen ezin da egiaztatu obra egiteko epea zuzena den, espedientearen ez baita jasota ageri obra jasotzeko akta.

Skate park-aren espedientearen ez da jasota ageri kontratuan ezarritakotik desbideratu izana justifikatzen duen txostenik.

Otik 3 urtera bitarteko eskolako altzarien espedientearen ez dira jasota ageri zenbait eskaintza aurkezteko data, jasotako proposamenen erregistroarena ez kontratazio mahaiak proposamenak jendaurrean irekitzeko akta. Behin-betiko bermeen gordailua eta behin-behinekoak itzuli izana ere ez dira jasota ageri.

Ondotik, laburpen gisa, inbertsioen kapituluko gomendio aipagarrienak azalduko ditugu:

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia betetzea, batez ere kontratazio-espedienteak betetzeari dagozkien alderdi formaletan.*
- *Inbertsio gastu guztien jarraipen egokia egiteko behar den informazio prozesuak ezartzea zenbait alderditan, hala nola behar adinako aurrekontu-kreditu dagoen betebeharrak aitortzeko edo finantzazio atxikia duten gastuak.*
- *Espedientearen erantzea kontratuaren aldaketarako jarduketak gastuaren azken igoera adjudikazio prezioaren ehuneko hamarretik gorakoa denean.*

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTE GOMENDIO BATZUK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbara honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen ondorio nagusiak, bere antolaketa, prozedura, kontabilitate- eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

Kasu batzuetan, gomendioak 2005eko ekitaldian betetzen ari dira.

V.2.1. Antolaketa orokorra

• *Aurrekontuaren likidazioa lege ezarritako epean onestea.*

• *Barne araubideari buruzko erregelamendu bat egitea, horren bidez definitu eta banatzeko udaleko organo exekutiboaren eskumenak eta erakunde autonomoekiko harremanak.*

• *Oinarriko kudeaketa-prozedurak idatziz jaretzea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

• *Oroйдidazkian sartzea udalaren organigrama.*

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua

• *Udal ondasunak –jabari publikoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*

• *1995eko udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea ziurtatu eta erraztuko duena.*

• *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

V.2.3. Diruzaintza

• *Kutxako kontaktak dokumentatzea.*

• *Udalak irekitako kontu korronteak, aspalditik mugimendurik izan ez dutenak, erregularizatzea.*

V.2.4. Langileak

• *Langileen espediente pertsonaletan jasotzea familia egoeraren zinpeko aitortzea.*

• *Idatziz garatzea langile bakoitzari esleitutako lanak eta nominak egin eta kontrolatzeari buruzko administrazio- nahiz kontabilitate-prozedurak.*

V.2.5. Transferentzia arruntak

• *Emandako dirulaguntzak berraztertzeke plan bat prestatzea, sistematikoki dirulaguntzak zuzen eman direla, udalak ezarritako baldintzei jarraikiz, bermatzeko modua emanen duena, eta kirol klubei*

dirulaguntzak emateari buruzko erregelamendua taxutzea.

V.2.6. Aurrekontuz kanpoko kontusailak

• *Erregelamendu bat ezartzea "Interes artistikoa duten obren atxikipenak" izeneko kontuan bildutako funtsen erabilera zehazteko.*

Francisco Javier Sesma Masa jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2005eko urriaren 21ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Antsoaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2005eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Antsoaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (8. or.).
- II. Helburua (8. or.).
- III. Norainokoa (8. or.).
- IV. Iritzia (9. or.).
 - IV.1. 2004ko aurrekontu bateratuaren lidakazioa (9. or.).
 - IV.2. 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena (9. or.).

IV.3. Legezketasuna (9. or.).

IV.4. 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoe-ra (9. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen ohar-rak (9. or.).

IV.6. Gomendioen jarraipena (9. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (10. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa (10. or.).

V.2. Kudeaketari buruzko beste gomendio batzuk (10. or.).

V.3. Hirigintza (10. or.).

V.4. Gorabeherak (11. or.).

V.5. Patronatuak (11. or.).

Eranskina: 2004ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia

Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Antsoaingo Udalak 9.526 biztanle ditu, eta hauexek dira 2004ko ekitaldiko zifrak:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2003-12-31n
Udala	10.714.846,55	13.956.422,18	62
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	459.725,68	118.501,11	4
Euskara sustatzeko Patronatua	82.387,57	43.128,85	1
Sexu hezkuntza eta jaiotza-kontrolerako patronatua	4.604,48	513,63	0
Guztira	11.261.564,28	14.118.565,77	67

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

a) Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendukoak eta eskualdeko hiri garraiokoak.

b) Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean. Horren bidez emantiko zerbitzuak dira etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programa eta abegi eta gizarte-orientazioa.

Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan ere parte hartzen du. Bulego hori Burlatan dago kokatuta.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2003ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateei oro har aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioari aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Antsoaingo Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Antsoaingo Udalaren finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2003ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganberak eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Antsoaingo Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoen "Gazte Berriak" Kirol eta Kultura Patronatua, Euskararen

Sustapenerako Patronatua eta Sexu Hezkuntza eta Famili Plangintzako Patronatua– finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude 2004ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua eta diruzaintzako gerakin bateratua, eta 2004ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta 2004ko ekitaldiko finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharrak ere.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta horrekin kudeatzen da, halaber, organo-kode baten bidez identifikatzen diren erakunde autonomoen kontabilitatea.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, eta antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertzea.

Lana egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauei jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian gelditu diren baldintzen eta arazoaren arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua eta barne kontrola hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Gauzaturiko fiskalizazioaren barruan, Antsoaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuak, 2004ko abenduaren 31n amaituriko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

IV.1. 2004ko AURREKONTU BATERATUAREN LIDIKAZIOA

Erantsi dugun 2004ko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak eta oharrek behar bezala agertzen dute, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dagokienez, ekitaldiko jarduera eta 2004ko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

Erantsitako 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak eta oharrek behar bezala

agertzen dute udalaren finantza eta ondare egoera, salbu eta ondasunen (ibilgetua) inbentarioaren kasuan, gaurkoturik ez dagoelako –1995ekoa da–.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezkontasun-printzipioari jarraituz egin da.

IV.4. 2004ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontu bateratua 9,7 milioi eurokoa da, eta behin betikoa, 14,2 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 80koa du, eta dirusarrerena, ehuneko 99koa.

2004ko ekitaldian gora egin du gastuen betetzearen ehunekoak, bai eta dirusarrerena ere. Azken horien artean, zuzeneko zergen betetzea ehuneko 91koa izan da, eta zeharkakoena ehuneko 64koa. Bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarrerena ehuneko 12 egiten dute. Udalaren baliabideen ehuneko 45 transferentzietatik eta urbanizazio kuotetatik datoz. Ekitaldiko beste finantziario iturri garrantzitsua 2,9 euroko mailegu berri bat da; izan ere, aitorturiko eskubideen ehuneko 20 egiten du mailegu horrek.

Ekitaldia ixterakoan, aurrekontuko emaitza doitu 21.000 euroko suberabita izan da, ekitaldian zehar finantziarioan gertaturiko desbideratzeen ondorioz. 2004ko abenduaren 31n, zorra 5,8 milioi eurokoa zen, eta ekitaldi horretan zehar arestian komentatu dugun 2,8 milioi euroko mailegua eman da. Finantza-karga ehuneko 1ekoa da; aurrezpen garbia ehuneko 7,4koa, eta diruzaintzako gerakin bateratua, 2,2 milioi eurokoa.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orri bateratuen informazio osagarria eta azalpen oharretan beharrezkoa den informazioa dago haiek ongi interpretatu eta ulertzeko.

IV.6. GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, esan daiteke 2003ko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izae-rako gomendio nagusiak aintzat hartuak izan direla, eta horiek behar bezala aplikatzeko neurri egokiak hartzen ari direla. Hala ere, oraindik indardun diren gomendioak txosten honetako V. puntuan jasota daude.

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehekaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

V.1.1. Homidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Kirol instalazio berrietarako hornidura zerbitzuen kontratazioa (497.289 €).
- Hiria garbitzeko zerbitzuen kontratazioa (139.224 €).
- Gizarte-etxea garbitzeko zerbitzuaren kontratazioa (38.000 €).
- Futbol zelaia handitzeko proiektuaren kontratazioa (119.000 €).

Udalak erosketen kudeaketarako prozedura normalizatua aplikatzen du.

Egindako azterketaren arabera, indarreko araudia behar bezala bete da, eta zuzen egin da espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarrai-pena.

V.1.2 Inbertsioak

2004ko ekitaldian ez da nabarmenezko moduko adjudikaziorik egin inbertsioen arloan. Adjudikaziorik aipagarrienak gazteriaren etxe berriaren obraren proiektua eta Lapurbideko obraren proiektua dira; horien kontratazio espedienteak aztertu ditugu, eta araudi indardunaren arabera dira.

2004an eginiko inbertsioak aurreko ekitaldian adjudikatutakoei dagozkie batik bat; aurreko ekitaldian aztertu ziren horiek, eta ez zen gorabehera adierazgarriak aurkitu (U.6 urbanizazioa, ST urbanizazioa, kirol instalazio berriak eta igerilekuak berritzea).

Espedienteetako batzuk herrian etxebizitzak sustatzeko urbanizazio obrei buruzkoak dira –unitate bakoitzeko lurzatiaren jabeek ordaindutako urbanizazio kuoten bidez finantzatzen dira obrak–. Hain zuzen ere, ekitaldi honetan 3,6 milioi euroko dirusarrerak izan dira kontzeptu horretan.

Egindako azterketaren arabera, indarreko araudia behar bezala bete da, eta zuzen egin da espedienteen kontabilitate- eta administrazio-jarrai-pena.

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTE GOMENDIO BATZUK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

V.2.1. Antolaketa orokorra

• *Barne araubideari buruzko erregelamendu bat egitea, horren bidez definitu eta banatzeko udaleko organo exekutiboaren eskumenak eta erakunde autonomoekiko harremanak.*

Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz taxuztea, eta horien exekuzio-fase bakoitzaren ardura-dunak identifikatzea eta esleitzea.

V.2.2 Inbentarioa-ibilgetua

• *Udal ondasunak –jabari publikoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*

• *1995eko udal inbentarioa gaurkotzea eta onestea.*

• *Udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

• *Ibilgetuko dokumentazioa artxibatze eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

• *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, Udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

V.2.3 Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

• *Adieraztea zein prozedura erabili diren dirusarreraren kudeaketaren datuak eta datu horiek beren kontabilitate-erregistroekin eta dirubiltzekoekin bat etorraraztetik lortutakoak egiaztatze-ko, horrela kontabilitate- eta aurrekontu-informazioaren segurtasun eta fidagarritasun handiagoak lortzeko.*

• *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak aldizka egitea.*

V.3. HIRIGINTZA

2003ko martxoaren 28an hartu zuen indarra Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege berriak, abenduaren 20koak, zeinaren bidez ordeztu baita uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea. Hasiera batean, Antsoango Udalak, 2004ko ekitaldian, hiri antolamenduari buruzko

lege berrian ezarritako lege-betekizunak betetzen ditu; halere, arian-arian aplikatzekoa denez (3 urte), etorkizunean egiten dituen inbertsio proiektuetan kontuan hartu beharko du.

V.4. GORABEHERAK

2004ko abenduaren 31n, U.34 eta UDR-2 unitateetako urbanizazio kuoten azken behin-behineko likidazioaren aurkako erreklamazio batzuk zuden, kuota horiek handitu zirelako urbanizazio proiektuetan egindako aldaketan ondorioz. Bi erreklamazioek 685.000 euro egiten dute.

Udal igerilekuak eraiki zituen enpresak bi errekurso aurkeztu ditu likidazioen aurka, 133.108,78 eta 211.768,21 eurokoak, hurrenez hurren, ezkutuko akatsak konpontzen egindako gastuarengatik eta instalazioak itxita egon ziren lau hilabeteetan bazkideei kobratu ez zitzaizkien kuotengatik.

Iruñeko Udalak administrazioarekiko auzi errekurso bana aurkeztu du Antsoaingo Udalak Hirigintza Gerentziari igorri zizkion 104.376,33 eta 21.023,38 euroko likidazioen aurka. Likidazioak ondokoak direla-eta igorri zizkion: Ezkaba SR sektoreko hirigintza kudeaketaren eta kudeaketa ekonomikoaren ehuneko 4, Nafarroako toki ogasunei

buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoa; eta udalak sektore horren tramitazioan ordaindutako gastu errealak, unitateko jabeen jasanarazi behar zaizkienak.

V.5. PATRONATUAK

Oro har, antzeman dugu patronatuek zenbateko urriko aurrekontuak kudeatzen dituztela. Hor-taz, kontuan izanda udalak aurrekontu bakarra kudeatzen duela eta hartan kode organiko baten bitartez bereizten direla patronatuetako bakoitza,

Gure gomendioa da zehaztu egin behar dela erakunde autonomoen benetako autonomia maila eta aztertu egin behar dela komenigarria ote den horiek udal zerbitzu deszentralizatu bihurtzea, horien kudeaketaren kontrola, efizientzia eta eraginkortasuna areagotzearen.

Francisco Javier Sesma Masa jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2005eko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Foru parlamentarien eta parlamentu-taldeen ordainsariak 2006ko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak eginiko txostena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 35. eta 37. artikuluetan xedatuari jarraikiz, hauxe ERABAKI DA:

1. Foru parlamentarien eta parlamentu-taldeen ordainsariak onestea, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez. Haien zenbatekoak hauek dira:

A) Foru parlamentarietako ordainsariak:

– Dietak: 139,20 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrorra bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietatzat.

– Dietak: 165,00 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora

dauden herrietan daukaten foru parlamentarietatzat.

– Kilometro-ordaina: kilometro bakoitzeko 0,29 euro.

B) Parlamentu-taldeentzako ordainsariak:

a) Diru-laguntza finkoa: 7.165,00 euro/hilabete/parlamentu-talde.

b) Diru-laguntza aldakorra: kontzeptuon araberrako baturaren zenbatekoa:

– Funtzionamendu gastuak: 1.294,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Antolaketa gastuak: 989,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Langile eta jarduera gastuak: 3.695,00 euro/hilabete/parlamentu-taldeko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 14. artikuluan ezarritakoari begira, gastuetarako ordainsaria dieta bakoitzerako 67 eurokoa izan dadila xedatzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Lehendakariaren, eledunen eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak lehendakariaren, eledun titular nahiz atxikien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko behin-behineko langileen ordainsariei buruz emandako txostena ikusi ondoren, 2003ko abenduaren 30eko bilkuran Legebiltzarreko Mahaiak onetsiriko irizpideei jarraituz, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15. eta 37. artikuluetan xedaturikoaren arabera, honako hau ERABAKI DA:

1. Lehendakariaren 2006. urteko ordainsari gordinak 74.776,80 eurokoak izatea.

2. Eledun titular edo atxikien 2006. urteko ordainsari gordinak 49.594,86 eurokoak izatea.

3. Lehendakaritzako Kabineteko buruaren 2006. urteko ordainsari gordinak 50.876,28 eurokoak izatea.

4. Lehendakaritzako idazkariaren 2006. urteko ordainsari gordinak 32.277,70 eurokoak izatea.

5. Mahaikideen idazkariaren 2006. urteko ordainsari gordinak 25.953,90 eurokoak izatea, deusetan galarazi gabe indarreko araudiarekin bat legokiokeen antzintasun eta graduagatiko ordainsaria.

6. Parlamentu-taldearen laguntzaileen 2006. urteko ordainsari gordinak 25.953,90 eurokoak izatea.

7. Halaber, sari bakarra eta kontsolidaezina ordainduko da, Nafarroako egiazko KPIren (3,7) eta ehuneko 2aren arteko desbideraketa-ehunekoaren parekoa. Sari hori kalkulatzeko, 2005. urtean sortutako ordainsari guztiak hartuko dira oinarri.

8. Hitzarmen bereziaren eraginpeko parlamentarien kotizazio-oinarriak errealizatzea, Zerbitzu Ekonomikoaren txostenean adierazitako irizpideei jarraituz.

9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006eko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa, 2006ko urtarrilaren 1ekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.1 artikulua xedatzen du Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onetsi behar dela, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren.

Hori horrela, ERABAKITZEN DUGU:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa, 2006ko urtarrilaren 1ekoa, onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

a) Funtzionarioak

	Kop.	Maila	Izen. lib.	Esklusi- bitatea	Batera- ezintasuna	Lanpostu osagar.	Mailako osagarria	Osag. berar.	Arrisku bereziko
IDAZKARITZA NAGUSIA									
Legelari nagusia	1	A	X	55		75		35	
Mahaiko eta Eledunen Batzarreko idazkaritza									
Administrari burua	1	C	X			49,18	12		
Administraria	1	C				39,18	12		
ZERBITZU JURIDIKOAK									
Legelari nagusiaren ondokoa	1	A	X	55		56		15	
Legelariak	3	A		55		56			
ZERBITZU OROKORRAK									
Administrazio teknikari burua	1	B		55		36			
Teknikari diplomatua (**)	1	B		55		11			
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	B			35	26			
Informatikako teknikaria	1	A			35	26			
Informatikako teknikaria	2	B			35	26			
Administrariak (*)	5	C				39,18	12		
Ofizial teknikaria (**)	1	C		55		13,50	12		10
Gelazain nagusia									
Gelazain nagusia	1	D				39,50	15		
Gelazainak	10	D				29,50	15		
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA									
Prentsako burua	1	A		55		56			
Itzultzaileak	5	A		55		10			
Protokoloko teknikaria	1	B			35	26			
Administraria (*)	1	C				39,18	12		
Transkriptoreak (*)	6	C				39,18	12		
Protokoloko Burutza									
Administrari burua	1	C				49,18	12		
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA									
Artxibo eta Liburutegiko burua	1	A		55		36			
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	26			
Administraria (*)	2	C				39,18	12		

	Kop.	Maila	Izen. lib.	Esklusi- bitatea	Batera- ezintasuna	Lanpostu osagar.	Mailako osagarria	Osag. berar.	Arrisku berezikoa
KONTU-HARTZAILAZA ETA EKONOMI GAIETAKO ZERBITZUA									
Kontu-hartzailezako burua	1	B		55		36		15	
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	B			35	26			
Administrariak	2	C				39,18	12		
<hr/>									
NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA									
Goi mailako teknikaria	1	A			35	26			
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	B			35	26			
Administraria	2	C				39,18	12		
Gelazaina	1	D				29,5	15		

(*) 1 euskarazko titulua duena.

(**) Iraungitzekoa.

b) Behin-behineko langileak

Zenbatekoa	Lanpostua	Izendapen librea
1	Lehendakaritzako kabineteburua	BAI
1	Lehendakaritzako idazkaria	BAI
1	Mahaiko kideen idazkaria	BAI
9	Parlamentu-taldean laguntzaileak	BAI

Arartekoaren behin-behineko langileak:

Zenbatekoa	Lanpostua	Izendapen librea
2	Arloko aholkulari arduraduna	C
2	Aholkulari teknikoa	C
1	Arartekoaren idazkaria	K

C: Arartekoaren Bulegoko behin-behineko karguduna.

K: Kabineteko behin-behinekoa.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2005eko abenduaren 31n.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuan 2005eko abenduaren 31n lanean ari ziren funtzionarioen ondoko zerrenda onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
IDAZKARITZA NAGUSIA				
DÍEZ LAGO, P.	A	6	Legelari nagusia	Aktiboa
<i>Mahaiko eta Eledunen</i>				
<i>Batzarreko idazkaritza</i>				
ALFARO ERVITI, C.	C	7	Administrari burua	Aktiboa
LASECA ESCUER, J.R.	C	5	Administraria	Aktiboa
ZERBITZU JURIDIKOAK				
ESPARZA OROZ, M.	A	6	Legelari nagusiaren ondokoa	Aktiboa
BERMEJO GARDE, M.	A	6	Legelaria	Zerb. Bereziak
PULIDO QUECEDO, M.F.	A	5	Legelaria	Zerb. Bereziak
LANPOSTU HUTSA	A		Legelaria	
ZERBITZU OROKORRAK				
CERRO PAÚL, F. J. DEL	B	7	Zerb. Orokorretako burua	Aktiboa
LARRAÑETA LIZARRONDO, M. V.	B	7	Teknikari diplomatua	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	B		Administrazio kudeaketako teknikaria	
LOYOLA ERASO, P.	A	4	Informatikako teknikaria	Aktiboa
ARANAZ JIMÉNEZ, E.	B	2	Informatikako teknikaria	Aktiboa
MARZAL PARRA, M ^a . A.	B	3	Informatikako teknikaria	Aktiboa
ARDAIZ EGÜÉS, A.	C	5	Administraria	Zerb. Bereziak
BEAR SANZ, C.	C	4	Administraria	Aktiboa
DÍAZ DE RADA TURUMBAY, J.C.	C	7	Administraria	Aktiboa
MIGUÉLIZ GARCÉS, I.	C	4	Administraria *	Aktiboa
LEZÁUN JUÁNIZ, M.	C	5	Administraria	Zerb. Bereziak
EQUIZA MAQUIRRIÁIN, J. M.	C	5	Ofizial teknikaria	Aktiboa
<i>Gelazain nagusia</i>				
ANSORENA URRIZA, A.	D	5	Gelazain nagusia	Aktiboa
ADOT LOPERENA, M.A.	D	4	Gelazaina	Aktiboa
ARIZCUREN REY, M. Á.	D	5	Gelazaina	Aktiboa
FADRIQUE GARDE, I.	D	6	Gelazaina	Aktiboa
ENECOIZ SEGURA, F.	D	3	Gelazaina	Aktiboa
MARTÍNEZ ORDUÑA, M. J.	D	4	Gelazaina	Aktiboa
MONEO MARTÍNEZ. M.I.	D	4	Gelazaina	Aktiboa
TORRES IBARROLA, J. M.	D	5	Gelazaina	Aktiboa
URMENETA MARÍN, O.	D	4	Gelazaina	Zerb. Bereziak
VENTURA ARBILLA, A.I.	D	5	Gelazaina	Zerb. Bereziak
LANPOSTU HUTSA	D		Gelazaina	

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostuak	Administrazio egoera
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA				
GIL MARTÍNEZ, C. J.	A	5	Prentsako burua	Aktiboa
ARANA BAREÑO, A.	A	2	Itzultzailea	Aktiboa
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, X.	A	2	Itzultzailea	Aktiboa
ETXEBARRIA ARIZNABARRETA, M.	A	3	Itzultzailea	Aktiboa
IRIARTE CILVETI, M.	A	3	Itzultzailea	Aktiboa
IRIZAR APAOLAZA, A.	A	2	Itzultzailea	Aktiboa
MENA GARCÍA, T.	B	3	Protokoloko teknikaria **	Aktiboa
ARMENDÁRIZ SENBEROIZ, B.	C	5	Administraria *	Aktiboa
ARANAZ MARTÍ, C.	C	4	Transkriptorea	Aktiboa
HUARTE CAMPIÓN, A. I.	C	5	Transkriptorea	Aktiboa
PALMA ROMERO, F.	C	5	Transkriptorea	Aktiboa
SÁENZ GARCÍA, M. C.	C	4	Transkriptorea	Zerb. Bereziak
SANTIAGO SEGOVIA, I. DE	C	4	Transkriptorea *	Aktiboa
SEVINÉ RUIZ, M.	C	2	Transkriptorea	Aktiboa
Protokoloko Burutza				
HUALDE ARBIZU, N.	C	7	Administrari burua	Aktiboa
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA				
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J.	A	6	Artxibo eta Liburutegiko burua	Aktiboa
ITURRI VILLANUEVA, A	B	2	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Aktiboa
ALEGRÍA GOÑI, M.C.	B	2	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Aktiboa
MITXELENA ENBIL, I. A.	C	4	Administraria *	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	C		Administraria	
KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMI GAJETARAKO ZERBITZUA				
ZULET RECALDE, F.	B	5	Kontu-hartzaitzako burua	Aktiboa
VIDÁN ASTIZ, L.	B	1	Administrazio kudeaketako teknikaria	Aktiboa
FERNÁNDEZ GELOS, M ^a V.	C	5	Administraria	Aktiboa
PÉREZ DE RADA ARÍSTEGUI, M. E	C	7	Administraria	Aktiboa
NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA				
LANPOSTU HUTSA	B		Administrazio kudeaketako teknikaria	
ECHEVERRIA UHALTE, C.	C	6	Administraria	Aktiboa
LÁINEZ GIL, M.	C	5	Administraria	Aktiboa
LANPOSTU HUTSA	D		Gelazaina	

(*) Euskarazko titulua nahitaezkoa duen lanpostua

(**) Ingelesezko titulua nahitaezkoa duen lanpostua